



ETA, ZUK ZER EGINGO ZENUKE?

Taldearen presioa - Rol-jokoa

Proposamena:

Rol-jokoa egitea: hiru egoera desberdin jarriko dira, non jokoan jartzen den taldekideek eragiten duten presioa, eta egoera horiei erantzuteko edo aurre egiteko modu desberdinak bilatzeko aukera..

Gomendatutako hartzaileak: DBH1 eta DBH2. Posible bada, bigarren hiruhilean, taldeak konfiantza-maila altua duenean.

Beharrezko materialak: kartoi mehe eta koloretako boligrafoak.

Helburua:

Tresnak ematea aurre egin ahal izateko irizpide propioa jokoan jartzen den egoerei taldekideek eragiten duten presioaren aurrean.

Jardueraren garapena:

Proposatzen da saio bat egitea jarraian azaltzen diren egoera desberdinak prestatzeko eta, ondoren, taldeko rol-jokoa burutzeko.

Lehenengo, komeni da talde-mailako prestakuntza egitea, egoera desberdinak azaltzeko eta oharretan hartzeko alternatibak edo "ez" esateko modu desberdinak, taldeko kide bakoitzak koloretako kartoi meheetan gehituko dituenak.

Jarraian, bateratze-lana egitea talde osoarekin, rol-joko gisa, talde txikietan hautatutako aukera desberdinekin.

Hauk dira landu beharreko egoerak:

1. Zure kuadrillako adin nagusiko batek edo adin nagusiko lagun bat duen kuadrillako batek dirua eskatzen dizu guztion artean pakete-tabako bat erosteko tabako-denda batean edo taberna bateko makinan, denon artean erretzeko.
2. Inauterietan, kuadrillarekin atera zara herrian ondo pasatzeko. Plazan zaudetela, zuek baino urtebete handiagoa den institutuko talde bat hurbiltzen zaizue ea erre nahi duzuen galdetzera. Zer esaten diezue? Nola erantzungo duzue?
3. Familiako bazkaria duzue; bazkaldu ondoren jatetxetik kanpo zoazte lehengusu-lehengusinak. Antzeko adinekoak zarete denok, 11 urtetik 15 urtera, eta zuetako batek besteoi galdetzen dizue ea erre nahi duzuen? Zer egingo duzue? Nola erantzungo duzue?

Erantzuteko aukera asko daude ez esateko eta ez jarraitzeko taldekideen presioak; guztietatik, lau aukeratu behar dira baldintza hauen bidetik:

- 1) Zerbait barregarria esatea.
- 2) Aitzakia bat jartzea.
- 3) Zerbait desberdina egitea.
- 4) Buelta ematea esaten denari